

## ANALISIA



Administrazioak izan baditu mekanismoak, ikastetxe batzuetan eta besteetan ikasleen harrera orekatzeko.

## Klase gatazka hezkuntzan



Mikel Garcia Idiakez  
@mikelgi

Aurre-matrikulazio garaian gauden honetan, gogoeta interesgarria egin du Aitor Etxarte Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakariak *Berrian*: aporofobiaz mintzatu da, pobreenganako fobiaz, edo nola inklusioaren eta aukera-berdintasunaren alde azaltzen garen publikoki, baina gero datuek kontrakoa dioten. Beharbada horregatik, herri eta hiri askotan ikastetxe *markatuak* daude oraindik, kasik ghetto bihurtuak, non profil jakineko eta maila sozioekonomiko ahulagoko familien seme-alabak diren nagusi. Eta maiz, segregazio eta pilaketa artifizialek muturreko egoerak eta zailtasunak sortzen dituzte, ghettoak are ghettoago bilakatuz. Ziurrenik, ez da bidezkoa gurasoak horren erantzule egitea, administrazioak berak izan badituelako mekanismoak, ikastetxe batzuetan eta besteetan ikasleen harrera orekatzeko, eta baliabideak behar bezala banatzeko.

Etxartek dioten moduan, azken ikerketek ere argi utzi dute: ikasle bakoitzaren testuinguru sozioekonomikoak baldintzatzen du haren ibilbide akademikoa.

“Nafarroan, DBHko 4. maila errepikatzen duten ikasleen kopurua, adibidez, %30ekoa da testuinguru sozioekonomiko baxuko ikasleen artean; eta %1,4koa soilik klase altukoaren artean”. Eta hain juxtu, eskola tresna proposa da egoera horri buelta emateko, eskola da gizarte kohesiorako oinarria eta haurren garapena eta aukera-berdintasuna bermatzeko bitartekoak jarri ditzakeena. “Ikastetxerik onenak dira jaiotzetik ezarritako determinismoa apurtzeko gaitasuna dutenak”, dio Etxartek; eta gehituko nuke gizarte/hezkuntza sistemarik onenak direla ikasle guztien aukera-berdintasuna bermatzeko gai direnak, ikaslearen “porrota” eskolaren ezina delako, gizarte sistemaren ezina. Zer esanik ez, maila sozioekonomiko baxuko ikasleetatik harago, maila sozioekonomiko baxuko ikasgela eta ikastetxeak ugaritzen ari direnean, bazterkeriara kondenatuak. *Status quo*a aldatzeko erreminta eraginkorra da eskola, baina horretarako, borondate politikoa behar da, baita aldaketa hori nahi eta bultzatuko duen gizartearen borondatea ere.

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Presio taldeak kontrolatu



Juan Mari Arregi

Izan estatubatuarra, txinatarra edo europarra, izan Espainiakoa, Frantziakoa edo Euskal Herrikoa, gobernu denak daude lobbyek edo presio taldeek inguratuta. Kasu askotan, erabaki politiko handiak ez dira hartzen hemizikloetan mikro baten aurrean, baizik eta gelatxo, korridore, kirol klub eta jatetxeetan egiten diren ezkutuko bileretan. Talde antolatuta horiek euren interesak soilik defendatu nahi dituzte itzaletik politika baldintzatuz; horiek dira lobbyak, ia gehienetan etekin ekonomikoaren bila dabilzanak.

Bada, Nafarroako Gobernua, arrazoiz, oso kezkatuta dago lobbyen funtzionamenduarekin, eta presio talde horiek kontrolatu eta kate moztzean lotu nahian dabil. Nafarroako Parlamentuan lantzen ari diren proposamenak herrialde anglosaxoietan egiten dutena kopiaztatzea dakar: existitzen diren presio talde guztiak erregistratzea. Talde horiek publiko egin beharko dituzte zein bilera mantentzen duten ordezkari politikoekin. Eta alderantziz, politikariek ere euren agendak publikatu beharko dituzte jende guztiak jakin dezan zeinekin ari diren biltzen. Lobbyen presioa delitu izan daiteke influentzia-trafikoagatik. “Ate birakari” delakoak ere arriskutsu izan daitezke, politikari eta ordezkari ohiek hartzen baitute parte ia gehienetan, eta azken batean “diferituan” egindako eroskeriak baizik ez dira.

Ea Nafarroako Gobernuak lortzen duen lobbyen erregistro hori osatu eta agenda politiko publiko bat edukitzea, Gardentasun Legeak dioten bezala. Euren interes ekonomikoaren mesedetan araudi eta legeak aldatzea bilatzen duten presio taldeak kontrolatzeko modu eraginkorra litzateke. Aurreko nafar foru gobernuak ez ziren preseski eredu izan arlo horretan... orduko lobbyek hitz egingo balute!